



## Erantzunik gabeko galderak

Lizar Sevillano Chocarro

EUSKARA POESIA 14-16 URTE

2. Saria

Sirena hotsak,  
erre usaina,  
beldurra, ikara,  
Iluntasuna eta dardara.  
Garraxiak nonahi  
erantzunik gabeko  
galdera gehiegi ere bai,  
amaren esku hotza  
ez dut askatu nahi.  
Ez dakit zergatik dauden hemen  
ez dakit zer egin ote diedan nik  
haur bat besterik ez naiz,





ez dut uste inorentzako

mehatxu bat naizenik.

Zergatik, zertarako, noiz arte...

Hemen daude berriz...

Sirena hotsak,

erre usaina,

beldurra, ikara,

Iluntasuna eta dardara...

